



Euskadiko nekazaritza elikagaien katearen kontrol ofizialerako Plana 2016-2020



AURKIBIDEA

1. SARRERA
2. PLANA EGITEKO, ONARTZEKO ETA EGUNERATZEKO PROZEDURA
3. HELBURU ESTRATEGIKOAK
4. AGINTARITZA ESKUDUNAK
 - 4.1. Egitura eta antolamendua
 - 4.2. Koordinazioa
 - 4.3. Gardentasuna eta isilpekotasuna
 - 4.4. Interes-gatazkarik eza
 - 4.5. Prestakuntza
5. LAGUNTZA-TRESNAK
 - 5.1. Informatika-euskarriak
 - 5.2. Laborategiak
 - 5.3. Zereginak eskuordetzea
6. KONTROL OFIZIALEN KALITATEA
7. KONTROL OFIZIALEKO PROGRAMAK
8. ERANSKINAK:
 - I. Terminoen glosarioa
 - II. Lege-araudia

1. SARRERA

Euskadiko Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plana 2016-2020 osatu da, elikagai eta pentsuen segurtasunaren eta kalitatearen arloko legezko eskakizunak betetzeko, alde batetik, eta Euskal Autonomia Erkidegoko elikagai eta pentsuen kontrol ofizialaz arduratzen diren agintaritza guztiek elkarren artean koordinatzeko dituzten beharrei erantzuteko, bestetik.

Nekazaritza eta Elikadura Politikari buruzko 17/2008 Legearen 101.2 artikulua agintzen duenari jarraikiz, plan hau martxan jartzea aurrerapauso handia izan da; izan ere, administrazioek elikakate osoan egiten diren kontrol ofizial guztiak integrazteko **elkarrekin lan egitea** eta elkarren artean **koordinatzea** lortu da. Horrek bide eman du hutsuneak detektatzeko eta kontrol ofizialerako dauden baliabideak optimizatzeko.

Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak eta Foru Aldundietako nekazaritza- eta abeltzaintza-arloetako sail eskudunek, Erika Fundazioaren laguntzarekin, Nekazaritzari, Abeltzaintzari, Arrantzari eta Elikadurari buruzko Kontrol Ofizialerako Programa hau egin dute, Europako lege-esparrua eta administrazio zentralak ezarritako oinarriak errespetatuz, baina EAeko elikagaien ekoizpen-sistemaren errealitatera eta euskal administrazioaren egituretara egokituta.

Agiri honetan, zehatz azalduta dago zer-nolako kontrol ofizialak eta jarduketak egin diren elikagai eta pentsuen segurtasunarekin, animalien osasunarekin, landareen osasunarekin, animalien ongizatearekin, giza kontsumorako ez diren animalia-azpiproduktuen (SANDACH) kudeaketarekin, merkataritza-kalitatearekin, elikagaien kalitate bereziarekin eta nekazaritza ekologikoarekin loturiko legeria betetzen ote den egiaztatzeko. Plana egiteko, aintzat hartu dira Elikakatearen Kontrolerako 2016-2020ko Plan Nazionalan (PNCOCA) zehaztutako ildo nagusiak.

Kontrol ofizialen bitartez, **aldez aurretik detektatu eta ezabatu nahi dira arriskuak**. Hori dela eta, kontrolak **arrisku-analisi** xehe batean oinarrituz antolatzen dira, zehatz-mehatz. Gainera, **kalitate, efikazia, eraginkortasun eta proportzionaltasun goreneko irizpideak** betez egin behar dira, eta, era berean, tokiko eta kalitatezko produktuak ekoitzi eta merkaturatzen dituzten operadore txikiei aurrera egiten eta beren burua sustatzen laguntzeko behar besteko malgutasunaz ezarri behar dira, betiere higienearen, ingurumenaren eta animalia-ongizatearen arloko arauak erreparatuta.

Plan honi **bost urteko indarraldia** emango zaio (2016-2020), bat egin dezan Europako estrategiekin eta Elikakatearen Kontrol Ofizialerako III. Plan Nazionalarekin. Hala, behar besteko denbora-tartea egongo da hala helburuak eta lehentasunak ezartzeko nola aurreikusitako lan guztiak egiteko. Era berean, urte anitzeko eskemari esker, urtero aztertu ahal izango da egindako lana, aintzat hartuz urteko jarraipen txostenen emaitzak, gertatzen diren lege-aldaketak edo kontuan izatekoa den beste edozein alderdi. Hartara, kontrol-jarduerak berriz programatzeko aukera ere egongo da.

Plana, horrenbestez, hala elikakatean inplikaturiko sektoreei nola kontrol ofiziala egiteko eskumena duten administrazioei eragiten dieten **kontrol ofizialak hobetzeko tresna bat da**.



2. PLANA EGITEKO, ONARTZEKO ETA EGUNERATZEKO PROZEDURA

2016-2020ko Plana zabala eta integrala izanik, argi eta garbi zehazturik daude koordinazio-lanak eta ondoren plana onesteko eta aldatzeko prozedurak.

Alde horretatik, Elikakatearen Kontrol Ofizialerako Plana erkidegoan koordinatzeko talde bat sortu zen 2011. urtean, **Koordinazio Talde Horizontala (KTH)**, eta EAEn nekazaritza-elikagaien esparrua kontrolatzeko programak ezartzeaz arduratzen diren zerbitzuberuek osatzen dute. Lantaldeak, besteak beste, plana modu koordinatuan kudeatzen du (ikusi 4.4.2. puntua).

Bestalde, **Lantalde Teknikoak (LT)** arduratzen dira Kontrol Ofizialerako Programak egiteaz eta eguneratzeaz, autonomia-erkidego osoan berdin aplika daitezen, eta lan horren nondik norakoak azaltzeaz.

Koordinazio-organo horietan, erabakiak adostasunez hartzen dira, eta erabaki teknikoak izan ohi dira; hortaz, hasiera batean ez dira legez nahitaez bete beharrekoak. Hori dela eta, dagokien esparruan erabakiak hartzeko organo gorenei aurkezten zaizkie, haiek onets ditzaten. Beraz, ziklo-aldaketetan (5 urtean behin) eta funtsezko aldaketak gertatzen direnean edo egoera dela-eta goi-mailako onespina behar denean, organo horiek **Nekazaritza eta Elikadura Politikaren Batzordea eta Gobernu Kontseilua** izaten dira.

Organo horiek plana erabaki eta/edo onesten dutenean, Garapen Ekonomiko eta Azpiegiturako Sailburuak Agindua argitarauko du Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean.

Planaren edukia urtero moldatu eta eguneratuko da, legerian eta administrazio-antolakuntzan eta -egituran izan diren aldaketak gaurkotzeko, edo, bestela, planaren urteko txostenaren emaitzen arabera, bat etortzeko zientzia-ezagutzaren bilakaerarekin, agertu diren gaixotasun berriekin edo osasun-arazoekin, edo barne-ikuskaritzetan eta/edo misio komunitarioetan emandako gomendioekin.

Plana zein planaren aldaketak onetsitakoan, Estatuko Administrazio Nagusiari behar bezala jakinaraziko zaio, bide formaletatik, hark Europar Batzordeari helaraz diezaion. Halaber, dagokion moduan argitaratu eta iragarriko da, behar den gardentasuna lortze aldera.

3. HELBURU ESTRATEGIKOAK

Nekazaritza Elikagaien Kontrol Ofizialerako EAeko 2016-2020ko Planak honako helburu estrategiko hauek ditu, zenbait jarduketa-lerrotan banakatuak:

1HE

Elikatearen begi guztietako arriskuak prebenitzea eta minimizatzea.

Jarduketa-ildoak:

- Nekazaritza-elikagaien kateko operadoreak gai egitea euren ekoizpenaren segurtasunari kalte egin diezaiokeen edozein arrisku identifikatzeko eta kontrolatzeko, dagokien sektorean higiene-jardunbide egokiak eta autokontrolerako sistemak ezarrita.
- Modu eraginkorren detektatzea eta kudeatzea nekazaritza-elikagaien kateko segurtasunarekin zerikusia duten arazoak.

2HE

Elikagaien segurtasun gorena bermatzea euskal ekoizpen-sektorean, eta, beraz, osasun publikoaren babes gorena bermatzea.

Jarduketa-ildoak:

- Operadoreek elikagaien eta pentsuen segurtasunari, landareen osasunari, animalien osasun eta ongizateari, azpiproduktuen kudeaketari eta nekazaritza-elikagaien kalitateari buruzko araudia betetzen dutela bermatzea, kontrol ofizialak behar bezala antolatuz eta kudeatuz.
- Arriskueta oinarrituriko irizpideak modu malguan eta neurriz aplikatzea, kontrol ofizialen lehentasunak eta maiztasunak ezartzeko, eta ahalik eta inpartzialtasun, gardentasun, trinkotasun eta kalitate handiena lortzen saiatzea.
- Kontrol ofizialen kalitatea bermatzea, agirien bidezko prozedurak aplikatuz eta kontrol-jarduera gainbegiratzuz, eta jarritako helburuak lortzen direla ziurtatzea, kontrol-sistemaren eraginkortasuna egiaztatuz eta barne-ikuskaritzak eginez.
- Nekazaritza-elikagaien katearen kontrol ofizialean esku hartzen duten agintari eskudun guztien arteko koordinazioa eta lankidetzatza bultzatzea.

3HE

EAeko nekazaritza-elikagaien ekoizpenaren industria-lehiakortasuna eta babesa sustatzea.

Jarduketa-ildoak:

- Operadore ekonomikoek Elikagaien Segurtasunaren arloko ezagutza egokia izatea lortzea, merkatuetarako lehiakortasun handiagoa emango dieten prestakuntza-planak martxan jarrita.
- EAeko nekazaritza-elikagaien katearen kontrol ofizialaren gaineko konfiantza areagotzea eta konfiantza-maila horri eustea.
- Elikagaien kalitatearekin eta segurtasunarekin lotutako merkataritza-transakzioetan leialtasun handia mantentzea eta merkatuaren batasunari eusten laguntzea.

Horrez gain, plan honetan jasotako kontrol ofizialeko programa bakoitzarekin lortu nahi diren helburuak ere zehaztu dira.

4. AGINTARI ESKUDUNAK

4.1. EGITURA ETA ANTOLAMENDUA


EAEk eskumen eskusiboak ditu nekazaritzaren, abeltzaintzaren, barneko uretako arrantzaren, itsaski-bilketaren, akuikulturaren, ehizaren eta ibai- eta aintzira-arrantzaren esparruan, Euskal Herriko Autonomia Estatuaren 3/1979 Lege Organikoaren arabera. Dena dela, Espainiako Konstituzioaren 149.1.13^a eta 16^a artikuluetan xedatutakoa bete behar da.

Bere eskumenez baliatuz, eta bat eginez Estatuko Administrazio Nagusiak EAeri egiten dizkion transferentziak arautzen dituzten arauekin, EAeri dagokio 882/2004 eta 2017/625 Araudietan ezarritako helburuen eta kontrol ofizialen gaineko erantzukizuna hartzea; zehazki, nekazaritza-elikagaien esparruari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Garapen Ekonomiko eta Azpiegitura Sailari.

27/1983 Legeak ematen dituen eskumenen banaketa aintzat hartuz (34/1985, 42/1985 eta 53/1985 Dekretuek taxutzen dute lege hori; dekretuon bidez, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru Aldundiei nekazaritza- eta abeltzaintza-zerbitzuak transferitzen zaizkie), Foru Aldundiek alde batetik ekoizpen-inguruen eta ekoizpenen kalitatea eta bestetik animalia-ekoizpenaren eta -osasunaren kalitatea kontrolatzen dute, eta, halaber, ekoizpen-inguruneak hobetzeko eta kontrolatzeko eta animalien gaixotasunak prebenitzeko eta saneatzeko esku hartzen dute.

EAEko eskumenen banaketa berezia dela eta, hainbat agintaritza eskudunek dute 882/2004 eta 2017/625 Araudiek aipatzen dituzten helburuak lortzeko eta kontrol ofizialak antolatzeko ardura, kasuan kasuko auzia zein den.

Beheko koadro honetan, labur azaltzen da nekazaritza-elikagaien katean kontrol ofizialen eskumenak nola dauden banatuta sektoreen artean:



4. AGINTARI ESKUDUNAK

4.1.1. EUSKO JAURLARITZA

74/2017 Dekretuak arautzen du **Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren** egitura organikoa eta funtzionala. Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako Sailburuordetzari emandako funtzio eta jarduera-arloetako batzuk hauek dira: Elikagaien Segurutasuna sustatzea; nekazaritza eta abeltzaintza sustatzea eta antolatzea; abeltzaintza, ehiza eta arrantza; nekazaritza-, arrantza- eta elikadura-industriak; eta nekazaritza-elikagaien kalitatearen kontrola.

Plan honi dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak honako egiteko hauek izango ditu:

- Estatuko oinarrizko araudia garatzea eta erkidegorako araudia egitea.
- Erkidegoko kontrol-plana osatzea Foru Aldundiekin batera, MAPA/AAEE koordinazio-ereduan oinarrituz.
- Foru Aldundiekin batera kontrol-plana gauzatzeko ardura hartzea.
- EAE MAPAn ordezkatzeko, erkidegoko kontrol-planei buruzko informazioa bidaltzea eta kanpoko administrazioekin (EB eta autonomia-erkidegoak) harremanetan egotea.
- Kontrolei buruzko datuak hartzea eta kudeatzea, eta MAPAra bidaltzea.

Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak, eta zehazki Nekazaritza Sustapenerako eta Antolakuntzarako Zerbitzuak, Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plana koordinatzen du Eusko Jaurlaritzaren barruan, Foru Aldundiekin batera.

Gainera, kontrol-programak antolatzea, egituratzea, koordinatzea, gauzatzea, kontrolatzea eta ebaluatzea Garapen eta Azpiegitura Sailaren hainbat zuzendaritzari dagokie, eta Foru Aldundiek haiekin jarduten dute elkarlanean, euren eskumeneko esparruan.

Horrela, **Arrantza eta Akuikultura Zuzendaritzak**, kasurako, erauzketa-arrantzaren, itsaski-bilketaren eta akuikulturaren esparruan koordinatu eta betearaziko ditu kontrol ofizialeko programak.

Bestalde, **Elikagai Kalitatearen eta Industrien Zuzendaritzak** elikagaien merkataritza-kalitatea kontrolatzeko programa koordinatu eta betearaziko du; halaber, agintaritza eskudun gisa dagozkion funtzioak beteko ditu jatorri geografiko bati lotutako kalitate berezia (DOP eta IGP), Espezialitate Tradizional Bermatuak (ETG) eta Ekoizpen Ekologikoa kontrolatzeko sistemetan.

Azkenik, **Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzari** dagokio nekazaritzaren eta abeltzaintzaren arloko kontrol ofizialeko programak koordinatzea. Zehazki, zuzendaritza horren barruan hiru zerbitzuek jarduten dute plan honetan:

- a. Mintegiko Hazien eta Landareen Zerbitzua: Foru Aldundiekin batera, nekazaritza-higienearekin eta -osasunarekin lotutako programak koordinatu eta gauzatzen ditu.
- b. Elikagaien Segurutasun eta Trazabilitate Zerbitzua: Foru Aldundiekin eta beste sail batzuekin batera, animalia-elikadurarekin lotutako kontrol ofizialeko programak koordinatu eta gauzatzen ditu, eta giza kontsumorako ez diren azpiproduktuen (SANDACH) kontrol ofiziala egiten du SANDACH establezimendu eta garraioetan.
- c. Nekazaritza Sustapeneko eta Antolakuntzako Zerbitzua: animalia-ongizatearekin eta animalien higiene eta osasunarekin zerikusia duten programak koordinatzen ditu.

4. AGINTARI ESKUDUNAK

4.1.2. FORU ALDUNDIAK

Lurralde Historikoen 27/1983 Legeak, 7. artikuluko b atalean, xedatzen du **lurralde historikoei edo Foru Aldundiei** dagokiela erakunde erkideek landare-ekoizpen eta -osasunaren eta animalia ekoizpen- eta -osasunaren esparruan ematen dituzten arauak garatzea eta betearaztea. Zehazkiago, lurralde historikoetako nekazaritza- eta abeltzaintza-arloko zuzendaritza eskudunek izango dute ardura hori. Honako foru-dekretu hauetan daude zehaztuta zuzendaritza horien egitura eta zereginak:

- 3/2015 Foru Dekretua, ekainaren 24koa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren sailak eta horiei dagozkien jardun-esparruak eta eginkizunak finkatzekoa.
- 18/2015 Foru Dekretua, ekainaren 25ekoa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren oinarritzko sail-egiturari buruzkoa.
- 14/2016 Foru Dekretua, otsailaren 9koa, Arabako Diputatuen Kontseiluarena, Nekazaritza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duena.
- 84/2016 Foru Dekretua, maiatzaren 3koa, Bizkaiko Foru Aldundiarena, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren egitura organikoa arautzen duena.

EAEko Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plan honi dagokionez, **nekazaritza- eta abeltzaintza-zerbitzuek** esku hartzen dute planean, koordinazio-organoetan aktiboki parte hartuz eta beren eskumenekoak diren kontrolak eginez.

Zehazki, **abeltzaintza-zerbitzuek** animalia-ongizateari, abeltzaintza-ekoizpen primarioaren higieneari, animalia-elikadurari eta abeltzaintza-ustiategietako SANDACHEi dagozkien kontrolak egiten dituzte.

Bestalde, **nekazaritza-zerbitzuak** nekazaritza-ekoizpen primarioaren higieneari, landare-osasunari eta produktu fitosanitarioen erabilerari dagozkien kontrolak egiteaz arduratzen dira.

4. AGINTARI ESKUDUNAK

4.2. KOORDINAZIOA

4.2.1. Nekazaritza eta Abeltzaintza Politikaren Batzordea

Honako hauek dira batzordekideak: Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako sailburuordea, Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendaria, eta Elikagai Kalitatearen eta Industrien zuzendaria, eta hiru Foru Aldundietako Nekazaritza diputatuak.

Batzorde honetan Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza- eta elikadura-politikak diseinatzeko dira, nekazaritzaren eta elikaduraren esparruan jarduteko planak eta programak proposatzeko dira, eta interesekotzat jotzen diren auziak eztabaidatzen dira (Nekazaritza eta Elikadura Politikari buruzko 17/2008 Legea).

4.2.2. Plana Koordinatzeko Talde Horizontala (KTH)

Lantalde hau Plan honetan jasotako programak ezartzeaz arduratzen diren unitateetako zerbitzuek osatzen dute; zehazki, zerbitzu hauetakoek:

- AFaren Abeltzaintza Zerbitzua
- AFaren Laguntza Zuzenen Zerbitzua
- BFaren Abeltzaintza Zerbitzua
- BFaren Nekazaritza Zerbitzua
- GFaren Abeltzaintza Zerbitzua
- GFaren Landare Arloko Unitatea
- EJko EGA Sailaren Arrantza Plangintzarako eta Antolamendurako Zerbitzua
- EJko EGA Sailaren Kalitate Defentsarako eta Iruzur Kontrolerako Zerbitzua
- EJko EGA Sailaren Elikagaien Segurtasun eta Trazabilitate Zerbitzua
- EJko EGA Sailaren Mintegiko Hazien eta Landareen Zerbitzua
- EJko EGA Sailaren Nekazaritza Sustapen eta Antolakuntzarako Zerbitzua

Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendaria da lantaldeko burua, eta haren ardura da Plana erkidegoan koordinatzea. Erika Fundazioak lantaldeko idazkari tekniko jarduten du.

Lantalde honi dagozkio plana modu koordinatuan kudeatzeko beharrezko zeregin guztiak:

- Planaren kontrol ofizialerako programen esparru bateratua zehaztea.
- Lantalde teknikoaren estrategia ezartzea.
- Planaren inguruko dokumentazioa onestea: programak, prozedurak, kontrol-orriak, ikuskaritza-programa, etab.
- Prestakuntza-plan horizontalak definitzea.
- Kontrolak gainbegiratzeko eta kontrolen eraginkortasuna egiaztatzekeko prozedurak zehaztea.
- Ikuskaritza-sistema definitzea eta egituratzea.
- Planaren jarraipena egiteko urteko txostenen edukiak zehaztea.


Lantalde hau aldizka biltzen da, eta Planari buruzko alderdiren bat adostu behar den bakoitzean.

4. AGINTARI ESKUDUNAK

4.2.3. Lantalde Teknikoak (LT)

Dokumentazioa garatzean eta kontrol-programak betearaztean ahalik eta koordinazio handiena lortzeko helburuz, Koordinazio Talde Horizontalak nahi beste lantalde sortzeko erabakia hartu ahalko du, eta, lantalde horietan, programak gauzatzeko eskumena duten administrazioetako ordezkariak esku hartuko dute.

Oro har, kontrol-programa guztiek LT bana izango dute. Gainera, Abeltzaintza Arloa Koordinatzeko Lantalde bat egongo da, eta abeltzaintzaren esparrua (batik bat, animalia-ongizatea eta abeltzaintza-ekoizpen primarioaren higieena) ofizialki kontrolatzeko programak koordinatzeaz arduratuko da. Lantalde horretako kide izango dira Foru Aldundietako hiru abeltzaintza-zuzendariak eta Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza Antolamenduko eta Sustapeneko burua. Beste kontrol-programa batzuei dagozkien gaiak lantzean (adibidez, animalia-elikadura, akuikultura eta SANDACH), tartean diren programen arduradunei dei egingo zaie bileretara joateko.



4.2.4. Landare Osasuna Koordinatzeko Batzorde Teknikoa

Batzorde honetako kideak dira Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Saileko eta hiru Foru Aldundietako teknikariak. Batzorde honek pestiziden inguruko araudia garatu eta aplikatu beharko du (Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuak 2006ko irailaren 12an emandako Agindua).

4.2.5. Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua

Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseilua (ENEK) zuzenbide publikoko erakunde bat da, eta 834/2007 Araudia kontrolatzeko agintaritza-funtzioak betetzen ditu. Kontseiluaren helburua, hain zuzen, erkidegoko araudian zehaztutako ekoizpen-, elaborazio-, inportazio- eta merkaturatze-arauak betetzen direla bermatzea da. Hauek dira kontseilukideak: ekoizpen-sektore ekologikoaren ordezkariak (ustiategiak, ekoizpen-, inportazio- eta/edo merkaturatze-enpresak, kontsumitzaileak) eta hiru Foru Aldundietako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko ordezkariak (Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoari buruzko 10/2006 Legea).

4. AGINTARI ESKUDUNAK

4.2.6. Osasun arlo Publikoarekiko Koordinazioa

Plan hau nekazaritza-elikagaien kateari badagokio ere, giza osasunaren esparruarekin bat datozen lan-arloak detektatu dira. Hori dela eta, Osasun Sailarekin hainbat mailatan koordinatzeko zenbait organo eratu dira:

a. Osasun Publikoaren eta Nekazaritzaren Sailen arteko Batzordea

Honako hauek dira organo politiko honetako kide: Osasun sailburuordea, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Politikako sailburuordea, Osasun Publikoko eta Droga-mendekotasuneko zuzendaria, Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendaria, Elikagai Kalitatearen eta Industrien zuzendaria, eta Elikako zuzendari/gerentea. Aldian-aldean biltzen da batzordea, euskal ekoizpenen Elikagai Segurtasunari eragiten dioten gaiei buruzko erabakiak hartzeko.

b. Osasun Publikoa eta Animalien Osasuna Koordinatzeko Batzorde Teknikoa

Hauek dira organo tekniko honetako kide: Animalia Osasunari eragiten dioten zerbitzuetako buruak (hiru Foru Aldundietako Abeltzaintza Zerbitzuen Buruzagitza eta Nekazaritza Sustapen eta Antolamendurako Zerbitzuen Buruzagitza), eta Osasun Publikoari eragiten dioten zerbitzuetako buruak (Osasun Programen Zerbitzuen Buruzagitza eta Osasun Publikoaren Lurralde Zuzendariordearen ordezkariek). Batzordea sei hilean behin elkartzen da gutxienez.

c. Osasun Publikoa eta Arrantza Koordinatzeko Batzorde Teknikoa

Arrantzaren lehen mailako ekoizpenari eragiten dioten zerbitzuetako buruak (Arrantzaren Antolamendurako Zerbitzuen Buruzagitza) dira organo tekniko honetako kide.

d. Produktu Zoosanitarioen Batzordea

Kide anitzeko aholku- eta koordinazio-organoa hau (156/2001 Dekretua) Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzako eta Farmazia Zuzendaritzako ordezkariek eta hiru Foru Aldundietako Abeltzaintza Zerbitzuetako ordezkariek osatzen dute. Albaitaritzako sendagaiek eta pentsu sendagarriek EAEn dituzten ondorioei aurre egiteko bidezkoak diren proposamenak egiten ditu, besteak beste.

e. HIPN Batzorde Teknikoa

Hondakin Ikerketarako Plan Nazionala egiteaz, aztertzeaz eta ebaluatzeaz arduratzen den taldean erakunde hauetako teknikariak aritzen dira:

- Osasun Sailaren Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza
- Osasun Sailaren Farmazia Zuzendaritza
- Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritza
- Foru Aldundien Abeltzaintza Zerbitzuen Zuzendaritza

4. AGINTARI ESKUDUNAK

4.3. GARDENTASUNA ETA ISILPEKOTASUNA

Kontrol-ofizialarekin lotutako lanak egiten dituzten agintaritza eskudunek erabateko gardentasunaz jardungo dute, 882/2004 Araudiaren 7. artikulua eta 2017/625 Araudiaren 11. artikulua xedatzen duten moduan. Era berean, kontrol-ofizialarekin lotutako lanak egiten dituztenek gardentasunez jardun beharko dute, 5/2015 Errege Dekretua betez, eta, nolahi ere, isilpekotasun-printzipioa, lanbide-sekretua eta datu pertsonalak babesteko arauak beteko dituzte.

Horretarako, jendaurrean jarriko da, Planean esku hartzen duten agintaritza eskudunen **erakunde-webguneen** bidez, egokitzat jotzen den informazio guztia. Modu horretan, herritarrek eskura izango dituzte agintaritza eskudunen kontrol-lanari buruzko datuak, elikagai edo pentsuek une jakin batean sor ditzaketen arriskuei buruzko informazioa eta arriskuok prebenitzeko, murrizteko edo ezabatze hartzaren neurriak.

Isilpekotasunari dagokionez, kontrol-lanak egiten dituzten langileek isilpean gordeko dituzte gai sailkatuak edo legez zabaldu ezin diren beste batzuk, eta behar den diskrezioaz jokatu dute beren kargua dela-eta ezagutzen dituzten auzien inguruan. Ildo horretatik, lortutako informazioa ezingo dute euren edo beste batzuen onurarako erabili, ezta interes publikoaren kaltetan ere, Langile Publikoen Oinarrizko Estatutuaren 5/2015 Errege Dekretuak ezartzen duen bezala.

Horri dagokionez, gainera, 1945/1983 Errege Dekretuak dio ikuskatzaileek zorrotz bete behar dutela, nahitaez, lanbide-isilpekotasunaren betebeharra. Betebehar hori bete ezean, ikuskatzaileak zigortu egingo dira, bat eginik lan egiten duten Administrazio Publikoen Diziplina Erregimenaren Araudiak ezartzen dituen aginduekin, batetik, eta Estatuko Funtzionario Zibilen Araudiarekin, bestetik.

4.4 INTERES-GATAZKARIK EZA

Kontrol ofizialak egiten dituzten langileak Administrazio Publikokoak izango dira, eta, beraz, Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko 5/2015 Errege Dekretua bete beharko dute. Estatutu horren arabera, langile publikoek printzipio hauek bete behar dituzte, langile publikoen **jokabide-kodearen** oinarri diren heinean: objektibotasuna, zuzentasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, isilpekotasuna, zerbitzu publikoaren gaineko ardura, gardentasuna, eredugarritasuna, zorrotasuna, eskuragarritasuna, eraginkortasuna, zintotasuna, kulturaren eta ingurumenaren sustapena, eta gizon eta emakumeen arteko berdintasunarekiko errespetua.

Alabaina, kontrol-programak Administrazio Publikoko langileek ezarri beharrean beste erakunde batzuei zereginak eskuordetuta ezartzen badira, erakundeok ere printzipio horietan bete beharko dituzte, zerbitzuak emateagatik.

4.5 PRESTAKUNTZA

Plan honekin lotutako prestakuntzaren sistematika zehaztuta dago **[“EAEko Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako 2016-2020ko Planaren inguruko Prestakuntza Plana”](#)**, delakoan (**Plana Koordinatzeko Talde Horizontala** onetsi zuen plan hori).

5. LAGUNTZA-TRESNAK

Kontrol Ofizialaren funtzionamenduari eusten eta laguntzen dioten tresnak honako hauek dira: ikuskatzaileak, nazioko eta autonomia-erkidegoetako informatika-aplikazioak eta datu-baseak, erreferentziazko laborategi nazionalak, errutina-kontroletako laborategiak eta kontrol ofizialen zereginen bat eskuordetzan jaso duten organismoak.

5.1. INFORMATIKA-EUSKARRIAK

Operatzaile guztiek inskripzio eguneratuak izan behar dituzte gauzatzen duten jardueraren administrazio-erregistroetan, egiaztagiriekin batera.

Autonomia-erkidegoan, EAEko Nekazaritza Ustiategiaren Erregistro (NUE) bat dago, eta helburu du nekazaritza-, abeltzaintza- eta baso-ustiategi guztiak inskribatzea; zehazki, lursail edo instalazioen zati handiena autonomia-erkidegoaren barruan dituztenenak (203/2011 Dekretua).

Kontrol ofizialen aplikazio-esparruetan bestelako informazio-erregistro eta sistemak daude, hala Komunitatean nola estatuan eta autonomietan:

5.1.1. Abeltzaintzaren esparrua

Bizirik dauden abereen trazabilitatea bermatu ahal izateko, estatuan Animalien Trazabilitatearen Sistema Integrala (**SITRAN**) erabiltzen da: datu-base heterogeneo sakabanatua du, eta autonomia-erkidegoetan dauden erregistroak erregistro zentralizatu batean biltzen ditu. Oinarrizko sistema horrek, animalien trazabilitatea bermatzeaz gain, erraztu egiten du animalien osasuna eta laguntzen araubide jakin batzuk kontrolatzea; gainera, zaintza- eta alerta-sareen lagungarri da.

SITRANek hiru modulu nagusi ditu, eta hirurak daude elkarrekin lotuta:

- **REGA** (Abeltzaintza Ustiategiaren Erregistro Nagusia). Espainiako hogeita hamar animalia-espezie baino gehiagoko ustiategietako oinarrizko datuak jasotzen ditu (479/2004 Errege Dekretua).
- **REMO** (Abeltzaintza Intereseko Espezieen Mugimenduen Erregistroa). Informazioa biltzen du espezieen mugimenduen inguruan. Behiei dagokienez, banaka; gainerako espezieei dagokienez, sortaka (728/2007 Errege Dekretua).
- **RIIA** (Animalien Banakako Identifikazio Erregistroa). Ahalbidetu egiten du animaliak zalantzarik gabe identifikatzea, Animaliak Identifikatzeko Kode baten bidez; zehazki, horren bidez lortzen dira animaliar buruzko oinarrizko datuak, egon den herrialdeak eta bestelakoak. Erregistro hori martxan dago behi, ardi, ahuntz eta ekidoentzat (728/2007 Errege Dekretua).

EAEri dagokionez, SITRAN autonomikoak (**SITRAN EAE**) foru-aldundien abeltzaintza-zerbitzuen datu-baseetako informaziotik edaten du; era berean, datu horiek abeltzainek bere emandakoak dituzte oinarri (altak eta bajak kudeatzean emandakoak, identifikazio-agiriak eta errolda-aitorpenak izapidetzean emandakoak, eta abar), baita beren eskumenak baliatuz lortutakoak ere (ikuskaritzak, kontrolak, mugimendu-agiriak ematea eta abar).

Datu-base horien egitura lurralde historikoaren arabera aldatzen den arren, SITRAN EAEk SITRAN zentralaren antzeko antolakuntza eta funtzionamendua ditu.

Estatuan, aurrekoekin lotutako beste erregistro bat ere badago: **SIRENTRA** (Animalia Bizien Garraiolaria Erregistratzeko Informatika Sistema). Animaliak garraiatzeko baimenak emateko erabiltzen da (542/2016 Errege Dekretua).

5. LAGUNTZA-TRESNAK

Gainera, Osasuneko eta Albaitaritzako Alerta Sareak (**RASVE**) informazioa biltzen du animalien gaixotasunei buruz, eta bidea ematen du informazio epidemiologikoa kontsultatzeko, diagnostikoa egiteko, jarduketan eskuliburua kontsultatzeko edo gaixotasunen alerta-plana aztertzeke (1440/2001 Errege Dekretua).

Europar Batasunean, **TRACES** (Trade Control and Expert System) erabiltzen da. Animalien mugimenduak eta animalia-jatorriko produktuak kudeatzeko tresna da, Europar Batasunak erabiltzen duena bizirik dauden animalien eta animalia-produktuen inportazioa eta esportazioa kontrolatzeko, Europar Batasuneko mugen barnean zein kanpoan (2003/623/EB Erabakia, Batzordearena).

Azkenik, autonomian informazioa biltzeko beste sistema batzuk daude, Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Abeltzaintza Zuzendaritzak kudeatutakoak, eta foru-aldundietako abeltzaintza-zerbitzuek betetakoak:

- Osasun-programen informazio-sistemak
- Kontrol ofizialen datu-baseak
- Hildako animalien bilketa kudeatzeko informazio-sistemak

5.1.2. Animalien elikaduraren esparrua

Kontrol-esparru honetan erabilitako erregistro nagusia **ROAA** (Animalien Elikaduraren Operatzaileen Erregistroa) da, oinarrizko datuak jasotzen dituen gehigarriak, aurre-nahasteak edo pentsu konposatuak sortzen edo merkaturatzen dituzten animalien elikaduraren sektoreko establezimenduen inguruan (821/2008 Errege Dekretua).

Beste alde batetik, Estatuan erregistro horrek datu-basearen itxura artzen du, Animalien Elikadurako Establezimenduen Erregistroko Informatika Sistema (**SILUM**) izeneko informatika-aplikazioaren barruan. Zehazki, MAPAren mende dago (1471/2008 Errege Dekretua).

5.1.3. SANDACH esparrua

Gizakiek kontsumitzera bideratzen ez diren animalia-azpiproduktuen esparruan, **SANDACH**en Garraio Enpresen eta Biltze eta Prozesatze Establezimenduen Erregistroa erabiltzen da (1528/2012 Errege Dekretua).

5.1.4. Nekazaritzaren esparrua

Nekazaritzako kontrol ofizialen esparruan, honako erregistro hauek erabiltzen dira:

- **REGPEA**: Nekazaritza Ekoizpenaren Erregistro Orokorra (9/2015 Errege Dekretua).
- **ROPO**: Defentsa Fitosanitarioko Ekoizle eta Operatzaileen Erregistro Ofiziala (1311/2012 Errege Dekretua).
- **RETO**: Transakzio eta Operazio Erregistro Orokorra (1311/2012 Errege Dekretua)
- **ROMA**: Nekazaritza Makineriaren Erregistro Ofiziala (1013/2009 Errege Dekretua)
- **REGITEAF**: Fitosanitarioen Aplikazio Ekipoen Azterketa Teknikoen Erregistroa (1702/2011 Errege Dekretua)
- Kimuen Operatzaileen Erregistroa (379/2014 Errege Dekretua)
- Mintegietako Hazien eta Landareen Ekoizleen Erregistro Nazionala (30/2006 Legea).

5.1.5. Arrantzaren esparrua

Erauzketa-arrantzaren, itsaskilarien jardueraren eta akuikulturaren kontrol ofizialen esparrua da. Honako sistema hauek baliatzen dira:

- **CFPO**: Arrantza Flota Operatiboaren Errolda (3/2001 Legea).
- EAeko Itsaskilarien Errolda.

5. LAGUNTZA-TRESNAK

5.1.6. Elikagaien Merkataritza Kalitatearen esparrua

Kontrol ofizialeko esparru honetan, honako informazio-sistema eta erregistro hauek erabiltzen dira:

- **NEIE:** EAEko Nekazaritza eta Elikagai Industrien Erregistroa (422/2013 Dekretua).
- Ikuskaritzako datu-baseen erregistro informatizatua (iruzurrak).

5.1.7. Elikagaien Kalitate Bereziaren esparrua (DOP/IGP/ETG)

Kontrol ofizialaren esparru honetan EAEko Kontrol eta Ziurtatze Erakundearen Erregistroa erabiltzen da (93/2011 Dekretua).

5.1.8. Nekazaritza Ekoizpen Ekologikoaren esparrua

Kontrol ofizialeko esparru honetan, Ekoizpen Ekologikoko Operatzaileen Erregistroa erabiltzen da informazio- eta erregistro-sistema gisa (10/2006 Legea).

5.2. LABORATEGIAK

Eusko Jaurlaritzan Nekazaritzaren eta Abeltzaintzaren inguruko eskumena duen Zuzendaritzaren titularrak izendatzen ditu kontrol ofizialerako laborategiak, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialeko Plana koordinatzen duen agintaria denez gero. Izendapena agindu edo ebazpen baten bidez egingo da, eta Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratuko du.

Kontrol ofizialetan burutu behar diren laginen analisisien laborategien izendapena 2018ko urtarrillaren 25eko, Nekazaritza eta Abeltzaintzako zuzendariaren Ebazpenak eta 2018ko maiatzaren 29ko zuzenketak zehazten dituzte.

Laborategia beste autonomia-erkidego batekoa bada eta erkidego horrek elikakatearen kontrol ofiziala egiteko hautatu badu, ez da berriz izendatu behar.



5. LAGUNTZA-TRESNAK

5.3. ZEREGINAK ESKUORDETZEA

EAEko Kontrol Ofizialeko Agintaritzak Eskudunek kanpoko organismoen esku utz ditzakete zenbait jarduera: halakoetan, jardueren exekuzioa eskuordetuko da, baina inola ere ez eskumena.

Aukera hori baliatzen den kontrol-programetan, egintza hori dagokion kontrol-programan jasoko da. Halaber, Batzordeari zereginen eskuordetzearen berri eman behar zaio, zeregina eskuordetzen duen agintaritzak eskudunari eta eskuordetza jasotzen duen organismoari buruzko informazioarekin, eta eskuordetutako kontrol-zereginen xehetasunarekin batera.

Aukera hori gauzatzen denean, koordinazio efektiboa eta eraginkorra lortu behar da agintaritzak eskudunaren eta zereginak eskuordetuta jaso dituen organismoaren artean. Gainera, kontrol-organismoen esku zeregin espezifikoak uzten dituzten agintari ofizialek auditoretza edo ikuskaritzak egingo dituzte eskuordetza jaso duten kontrol-organismoen inguruan, esleitutako zereginak egoki betetzen ari direla egiaztatzeko.

6. KONTROL OFIZIALEN KALITATEA

Kontrol Ofizialeko Programek lan-prozedura dokumentatuak dituzte oinarri, eta bermatu egiten dute kontrol-jardueren kalitatea eta homogeneotasuna.

Beste alde batetik, aipatutako prozedura dokumentatuak betetzen direla egiaztatzeko, kontrol-jarduera gainbegiratzeko lanak egiten dira; zehazki, agiriak aztertzen dira eta in situ gainbegiratzen dira ikuskatzaileek eginiko lanak. Gainbegiratze-ehunekoak kontrol-programa bakoitzean zehazten dira.

Gainera, kontrolak kalitate-, eraginkortasun-, efizientzia- eta proportzionaltasun-irizpideei jarraikiz egiten direla bermatzeko, [“Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialeko Planean \(2016-2020\) jasotako Kontrol Ofizialen Eraginkortasuna Egiaztatzeko Prozedura”](#)-ri jarraitzen zaio: Koordinazio Talde Horizontalak onartu du eta homogeneotasunez aplikatzen da kontrol ofizialeko programa guztietan.

Azkenik, kontrol ofizialen eraginkortasuna eta aplika daitekeen araudiaren helburuak lortzeko egokitasuna bermatzeko, eta bat etorriz 2017/625 Araudiaren 6 artikulua eskatutakoarekin, kontrol ofizialeko programa guztietan barneko auditoretzak egingo dira, [“Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialen Planeko Auditoretza Programa”](#)-ren arabera. Hauen emaitzak kontutan hartuta, beharrezkoak diren neurriak hartuko dira.



7. KONTROL OFIZIALEKO PROGRAMAK

Euskal Autonomia Erkidegoko Elikakatearen Kontrol Ofizialeko Planak barne hartzen ditu nekazaritza, abeltzaintza, arrantza eta elikadura, eta honako kontrol-programa hauek:

- I. Erauzketa Arrantzaren Lehenengo Mailako Ekoizpenaren Higienearen Kontrol Ofizialeko Programa
- II. Akuikulturako Lehenengo Mailako Ekoizpenaren Higienearen Kontrol Ofizialeko Programa
- III. Animalia Ustiategietako Higiene Kontrol Ofizialen Programa
- IV. Nekazaritzako Lehenengo Mailako Ekoizpenaren eta Produktu Fitosanitarioen Erabileraren Kontrol Ofizialeko Programa
- V. Animalien Elikaduraren Kontrol Ofizialeko Programa
- VI. Abeltzaintza Ustiategietako eta Animalien Garraioko Animalia Osasunaren Kontrol Ofizialeko Programa
- VII. Giza kontsumorako ez diren animalia-azpiproduktuen (SANDACH) Kontrol Ofizialeko Programa SANDACH establezimendu eta Garraioetan
- VIII. Elikagaien Merkataritza Kalitatearen Kontrol Ofizialeko Programa
- IX. Jatorri geografiko bati otutako Kalitatearen eta merkaturatu aurretik Berमतutako Espezialitate Tradizionalen Kontrol Ofizialeko Programa
- X. Ekoizpen Ekologikoaren Kontrol Ofizialeko Programa
- XI. Landareen Osasunaren Kontrol Ofizialeko Programa



I. ERANSKINA – TERMINOEN GLOSARIOA

LABURDURAK

AAEE: Autonomia-erkidegoak

AE: Animalien Elikadura

AFA: Arabako Foru Aldundia

AGB: Adierazpen Geografiko Babestua

AO: Animalien Ongizatea

BFA: Bizkaiko Foru Aldundia

EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa

EB: Europar Batasuna

E/EAE: Euskadi / Euskal Autonomia Erkidegoa

ELIKA: Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa

EGA: Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila

EJ: Eusko Jaurlaritza

ESLILO: Ekonomia Sustapena, Landa Ingurunea eta Lurralde Oreka Saila (GFA)

ETB: Espezialitate Tradizional Bermatua

FFAA: Foru-Aldundiak

GFA: Gipuzkoako Foru Aldundia

HE: Helburu Estrategikoa

IIN: Iraunkortasuna eta Ingurune Naturalako Saila (BFA)

JIB: Jatorri Izendapen Babestua

KTH: Koordinazio Talde Horizontala

LT: Lantalde Teknikoa

MAPA: Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa

PHEG: Animalia Ustiatzietako Higiene Kontrol Ofizialen Programa

PHPE: Erauzketa Arrantzaren Lehenengo mailako Ekoizpeneko Higienearen Kontrol Ofizialeko Programa

PNCOCA: Elikakatearen Kontrol Ofizialeko Plan Nazionala

PNIR: Hondakinei buruzko Ikerketa Plan Nazionala

SANDACH: Giza Kontsumorako ez diren Animalia Azpiproduktuak

DEFINIZIOAK

«**Ikuskaritza**»: azterketa sistematikoa eta independentea, erabakitze aldera jarduerak eta jardueren emaitzek bat egiten ote duten aurreikusitako planekin, eta plan horiek eraginkortasunez aplikatzen diren eta helburuak erdiesteko egokiak diren (882/2004 Araudia).

«**Kontrol ofiziala**»: autonomia eskudunak edo erkidegoak egiten duen edozein kontrol-jarduera, pentsu eta elikagaiei buruzko legeria eta animalien osasunari eta ongizateari lotutako araudiak betetzen direla egiaztatzeko gauzatutakoa (882/2004 Araudia).

I. ERANSKINA – TERMINOEN GLOSARIOA

«**Higienea**»: elikagai batek giza kontsumorako izan ditzakeen arriskuak kontrolatzeko eta egokitasuna bermatzeko behar diren neurri eta baldintzak, aintzat hartuta produktu horretarako aurreikusitako erabilera (852/2004 Araudia).

«**Ez-betetzea**»: pentsu eta elikagaien inguruko araudia eta animalien osasuna eta animalien ongizatea babesteko arauak ez betetzea (882/2004 Araudia).

«**Ikuskaritza**»: pentsuei, elikagaiei, animalien osasunari eta animalien ongizateari lotutako alderdi guztien inguruko ikerketa, helburu duena egiaztatzea alderdi horiek bete egiten dituztela pentsu eta elikagaiei buruzko legerian ezarritako lege-betekizunak eta animalien osasunari eta ongizateari buruzko araudian xedatutakoak (882/2004 Araudia).

«**Neurri zuzentzailea**»: egiaztatze-lanaren ondoren egiten den edozein jarduera, detektatutako hutsegitea zuzentzeko edo gutxitzeko egiten dena.

«**Ekoizpen primarioari lotutako operazioak**» (852/2004 Araudia):

- Produktu primarioak garraiatzea, biltegitratzea eta manipulatzeko ekoizpenaren lekuan, betiere funtsezko izaera aldatzen ez bada.
- Animalia biziak garraiatzea, araudiaren helburuak lortzeko beharrezkoa denean.
- Produktu primarioak garraiatzeko operazioak, produktuen funtsezko izaera ez denean aldatu ekoizpenaren lekutik establezimendura bitartean.

«**Kontrol-plana**»: agintaritza eskudunak eginiko deskripzioa, informazio orokorra jasotzen duena bere kontrol ofizialeko sistemen egituraz eta antolakuntzaz (882/2004 Araudia).

«**Lehenengo mailako ekoizpena**»: lehenengo mailako produktuak ekoiztea, haztea edo lantzea, esnea batzea eta loditzeko animaliak haztea, hil baino lehen. Barne hartzen ditu, halaber, ehiza eta arrantza, eta basoko produktuen bilketa (178/2002 Araudia).

«**Gainbegiratzeko**»: egiaztatzea kontrolek bat egiten dutela kasuan-kasuan aplikatu daitezkeen prozedura-eskuliburuetan ezarritako prozedurekin.

«**Kontrol-sistemaren efikazia egiaztatzea**»: egiaztatzea programak koherenteak direla eta bidea ematen dutela kontrol-programa bakoitzak dagozkion araudietan ezarritakoaren arabera eskatutako helburuak lortzeko..

II. ERANSKINA – LEGE-ARAUDIA

ARAUDI KOMUNITARIOA

- **178/2002 Araudia**, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2002ko urtarrilaren 28koa, Elikagaiei buruzko araudiaren printzipio eta betekizun orokorrak ezartzen dituena, Elikagaien Segurtasunerako Europako Agintaritza sortzen duena eta elikagaien segurtasunari lotutako prozedurak ezartzen dituena.
- **2003/623/EB Erabakia**, Batzordearena, 2003ko abuztuaren 19koa, “TRACES” izeneko albaitaritza-sistema informatiko integratua sortzeari buruzkoa.
- **852/2004 Araudia**, Europako Parlamentuarena eta Batzordearena, 2004ko apirilaren 29koa, Elikagaien higieneari buruzkoa.
- **853/2004 Araudia**, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2004ko apirilaren 29koa, Animalia-jatorriko elikagaien higiene-arau espezifikoak ezartzen dituena.
- **854/2004 Araudia**, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2004ko apirilaren 29koa, Gizakiek kontsumitzeko animalia-jatorriko produktuen kontrol ofizialak antolatzekeo arau espezifikoak ezartzen dituena.
- **882/2004 Araudia**, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2004ko apirilaren 29koa, Pentsu eta elikagaien inguruko legeria eta animalien osasunari eta ongizateari buruzko araudia betetzen dela bermatzeko kontrol ofizialei buruzkoa.
- **2017/625 Araudia**, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2017ko martxoaren 15koa, Elikagaien, pentsuen, animalien osasuna eta ongizatea, landareen osasuna eta produktu fitosanitarioen inguruko legeria betetzen dela bermatzeko egiten diren kontrol ofizialen ingurukoa.
- **1935/2004 Araudia**, Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2004ko urriaren 27koa, Elikagaiak ukituko dituzten material eta tresnei buruzkoa.
- **2073/2005 Araudia, Batzordearena**, 2005eko azaroaren 15koa, Elikagaiei aplikatu ahal zaizkien irizpide mikrobiologikoei buruzkoa.
- **2074/2005 Araudia, Batzordearena**, 2005eko abenduaren 5koa, Produktu jakin batzuei aplikatu beharreko neurriak ezartzen dituena (853/2004 Araudian xedatutakoarekin bat etorriz) eta kontrol ofizialak antolatzekeo jarraibideak ematen dituena (854/2004 eta 882/2004 araudietan xedatutakoarekin bat etorriz).
- **2006/677/EB Erabakia**, Batzordearena, 2006ko irailaren 29koa, Ikuskaritzak 882/2004 Araudiaren arabera egiteko irizpideak ezartzeko jarraibideak ezartzen dituena.
- **2007/363/EB Erabakia**, Batzordearena, 2007ko maiatzaren 21koa, estatu kideei Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 882/2004 Araudian aurreikusitako kontrol bakarreko, integratuko eta urte anitzeko plana sortzen laguntzeko jarraibideei buruzkoa.
- **834/2007 Araudia, Batzordearena**, 2007ko ekainaren 28koa, Produktu ekologikoak ekoizteari eta etiketatzeari buruzkoa.
- **2008/98/EB Zuzentaraua**, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2008ko azaroaren 19koa, Hondakinei buruzkoa eta zuzentarau jakin batzuk indargabetzen dituena.
- **2008/654/EB Erabakia**, Batzordearena, 2008ko uztailaren 24koa, Estatu kideei Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 882/2004 Araudian aurreikusitako kontrol bakarreko, integratuko eta urte anitzeko planari buruzko urteko txostena sortzen laguntzeko jarraibideei

II. ERANSKINA – LEGE-ARAUDIA

- **1069/2009 Araudia**, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2009ko urriaren 21ekoa, Animalien azpiproduktuei eta gizakiek kontsumitzera bideratu ez diren produktu eratorriei aplikatu ahal zaizkien osasun-arauak ezartzen dituena, eta Animalien azpiproduktuei buruzko 1774/2002 Araudia indargabetzen duena.
- **142/2011 Araudia**, Batzordearena, 2011ko otsailaren 25ekoa, 1069/2009 Araudia aplikatzen duena.

ESTATUKO ARAUDIA

- **1945/1983 Errege Dekretua**, Kontsumitzaileen defentsari eta nekazaritzako elikagaien ekoizpenari lotutako arau-hausteak eta zehapenak araupetzen dituena.
- **14/1986 Lege Orokorra**, 1986ko apirilaren 25ekoa, Osasunari buruzkoa.
- **1749/1998 Errege Dekretua**, Substantzia jakin batzuei eta substantzia horiek animalia biziengan eta produktuetan uzten dituzten hondakinei aplikatu ahal zaizkien kontrol-neurriak ezartzen dituena.
- **3/2001 Legea**, martxoaren 26koa, Estatuko Itsas Arrantzari buruzkoa.
- **1440/2001 Errege Dekretua**, abenduaren 21ekoa, Albaitaritzako Osasun Alertako Sistema ezartzen duena.
- **479/2004 Errege Dekretua**, martxoaren 26koa, Abeltzaintza Ustiatgien Erregistro Nagusia ezartzen eta araupetzen duena.
- **640/2006 Errege Dekretua**, Elikagaien higienerari, ekoizpenari eta merkaturatzeari buruzko xedapen komunitarioen aplikazio-baldintza jakin batzuk araupetzen dituena.
- **542/2016 Errege Dekretua**, azaroaren 25koa, Animalien garraioan bete beharreko araudi sanitarioak eta babes-neurriak ezartzen dituena.
- **30/2006 Legea**, uztailaren 26koa, Mintegiko Haziei, Landareei eta Baliabide Fitogenetikoei buruzkoa.
- **1/2007 Errege Dekretua**, azaroaren 16koa, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileak Defendatzeko Lege Orokorren eta beste lege osagarri batzuen testu bateratua onesten duena.
- **728/2007 Errege Dekretua**, ekainaren 13koa, Abereen Mugimenduaren Erregistroa eta Animaliak banaka Identifikatzeko Erregistro Orokorra ezartzen eta araupetzen duena.
- **821/2008 Errege Dekretua**, maiatzaren 16koa, Pentsuen higienerari buruzko araudi komunitarioa aplikatzeko baldintzak araupetzen dituena, eta animalien elikaduraren sektoreko establezimenduen erregistro orokorra ezartzen duena.
- **1471/2008 Errege Dekretua**, irailaren 5ekoa, Pentsuetarako Alerta Sarea ezartzen eta araupetzen duena.
- **17/2011 Legea**, uztailaren 5ekoa, Elikagaien Segurtasunari eta Nutrizioari buruzkoa.
- **1311/2012 Errege Dekretua**, irailaren 14koa, Produktu fitosanitarioen erabilera iraunkorra lortzeko jarduera-esparrua ezartzen duena.
- **1528/2012 Errege Dekretua**, azaroaren 8koa, Animalien azpiproduktuei eta gizakiek kontsumitzera bideratuta ez dauden produktu eratorriei aplikatu ahal zaizkien arauak ezartzen dituena.

II. ERANSKINA – LEGE-ARAUDIA

- **9/2015 Errege Dekretua**, urtarrilaren 16koa, Nekazaritzako Lehenengo Mailako Ekoizpenaren Higieneari buruzko araudi komunitarioa aplikatzeko baldintzak araupetzen dituena.
- **5/2015 Errege Dekretua**, urriaren 30ekoa, Langile Publikoaren Oinarritzko.

ARAUDI AUTONOMIKOA

- **3/1979 Lege Organikoa**, abenduaren 18koa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena.
- **27/1983 Legea**, azaroaren 25ekoa, Autonomia-elkarte osorako erakundeen eta bertako kondaira-lurraldeetako foruzko ihardutze-erakundeen arteko harremanei buruzkoa, honako gai hauei dagokienez: landare eta animalien osasuna eta ekoizpena, eta lurralde historikoei nekazaritzaren arloko eskumenak eskualdatzea.
- **34/1985 Dekretua**, martxoaren 5ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde partekatuen eskumenak Arabako Lurralde Historikoari eskualdatzeari buruzkoa, honako gai honi dagokionez: nekazaritza.
- **42/1985 Dekretua, martxoaren 5ekoa**, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde partekatuen eskumenak Gipuzkoako Lurralde Historikoari eskualdatzeari buruzkoa, honako gai honi dagokionez: nekazaritza.
- **53/1985 Dekretua**, martxoaren 5ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde partekatuen eskumenak Bizkaiko Lurralde Historikoari eskualdatzeari buruzkoa, honako gai honi dagokionez: nekazaritza.
- **2/1998 Legea**, otsailaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigorrezko Ahalmenari buruzkoa.
- **156/2001 Dekretua, uztailaren 30ekoa**, Euskal Autonomia Erkidegoan albatari sendagaiak banatzen eta saltzen dituzten tokiak zabaltzeko, pentsu sendagarriak banatzeko eta ekoizteko eta albatariak erabiliko dituzten autotxertoak egiteko baimena ematen duena eta jarduera horiek guztiak kontrolatzen dituena.
- **10/2006 Legea, abenduaren 29koa**, Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoari buruzkoa.
- **Agindua, 2006ko irailaren 12koa**, Nekazaritza eta Abeltzaintza sailburuarena, nekazaritza-erabilerarako plagizida aplikatzailearen agiria berritzeko moduari eta betekizunei buruzkoa.
- **17/2008 Legea**, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikadura Politikari buruzkoa.
- **93/2011 Dekretua**, maiatzaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintza Produktuen Kontrol eta Egiaztapenerako Erakundearen Erregistroa sortzen eta arautzen duena.
- **203/2011 Dekretua** irailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Ustiatzearen Erregistro Orokorriari buruzkoa.
- **422/2013 Dekretua**, urriaren 7koa, Nekazaritzako eta Elikagaigintzako industrien erantzukizunpeko adierazpenen erregimena arautzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza eta Elikagaigintzako Industrien Erregistroaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzkoa.
- **74/2017 Dekretua**, zeinaren bidez ezartzen baita Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala.



II. ERANSKINA – LEGE-ARAUDIA

FORU-ARAUDIA

- **3/2015 Foru Dekretua**, ekainaren 24koa, Gipuzkoako Foru Aldundiko sailak eta horiei dagozkien jardun-esparruak eta eginkizunak finkatzekoa.
- **18/2015 Foru Dekretua**, ekainaren 25ekoa, Gipuzkoako Foru Aldundiko oinarritzko sail egiturari buruzkoa.
- **14/2016 Foru Dekretua**, otsailaren 9koa, Arabako Diputatuen Kontseiluarena, Nekazaritza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duena.
- **84/2014 Foru Dekretua**, Bizkaiko Foru Aldundiarena, maiatzaren 3koa, Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Sailaren egitura organikoa arautzen duena.